



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## JUBILATUEKIN BILERA



**AIZTONDO**  
Zerbitzuen Mankomunitatea

Adunatar jubilatatu hori:

Azken urteotan ospatzean ari garen bezala aurten ere, Aiztondoko jubilatuentzat bazkaria egingo dugu.

Aurten, berriro, Adunan egingo dugunez, zure iritzia jaso nahi dugu, horretarako **apirilaren 14ean, asteartea, arratsaldeko 17:30etan, Adunako liburutegian** antolatuta dagoen bilerara gonbidatua zaudela jakinarazi nahi dizugu.

Bilera honetan, hurrengo Aiztondo jubilatuentzat antolatzen diren irteerei buruz hitz egiteko aukera izango dugu

Jakin dezazun guretzat zure laguntza ezinbestekoa dela.

Apirilaren 14ean, Adunako liburutegian ikusiko garelakoan, agurtzen zaitu

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko kultura sailak

## AGENDA

**Martxoak 29 (Igandea) – 12:00** Aberri eguneko ospakizuna (Plazan)

**Apirilak 14 (Asteartea) – 17:30** Jubilatuekin bilera (Liburutegian)

**Apirilak 19 (Igandea) – 18:00** Gorostidi Harria (Frontoian)

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)



ADUNAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ABERRI EGUNEKO OSPAKIZUNA

Urtero bezala, Adunako Udalak dei egiten dizue herritar guztioi, denok batera Aberri Eguna ospa dezagun, Adunan bertan, Aberri Egunaren aurreko igandean, martxoaren 29an.

Egun horretarako, egitarau xume hau antolatu du:

12:00etan, ikurrinaren igoera.

Ondoren, Aberri Eguneko adierazpenaren irakurketa.

Jarraian, hamaiketakoa herritar guztiontzat.

Horrez gain, Udalak herritar guztiok gonbidatzen zaituzte balkoietan ikurrina jartzera. Ikurrina erosi nahi duenak aukera izango du martxoaren 29an bertan, 3 euroren truke.



Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)